

Beti eskamak kentzen

Santa Katalinako **kobako** arrantzaleak

Testua: Eduardo Berganza eta José Luis Arribas

Batzuetan arkeologoek aurkikuntza bikainak egiten dituzte eta iraganetik ezkutuan iraunduten objektu oso zaharrak, bakanak edo ederrak berreskuratzen dituzte.


Horrelakoak dira, besteak beste, Paleolitoko artelanak. Nolanahi ere, gogora ekarri behar da indusketa arkeologikoen helburua ez dela objektu edo irudi ikusgarri eta harrigarriak biltzea, baizik eta historiaurreko bizitegi jakin baten ingurunea nolakoa zen argitzea eta bertako gizakiak nola bizi ziren azaltzea. Beraz, milaka urteetan zehar haizuloetako hondoko sedimentuetan pilatutako hondakintxoak oso lagungarriak gertatzen dira lehen gizakiaren bizimodua ostentzen duen lainoa argitzeko. Gaur egunera arte iraun duten aztarna guztiek, are

itxuraz deusezak diruditenek ere, informazio baliotsua ematen dute beren historiari zein inguruaz.

Aztarnategi arkeologikoetako ikerlana metodikoa, zehatza eta neketsua da; ez da ezer gutxietsi behar, ez eta ezabatu. Informazioa zuzen biltzeko ezinbestekoak dira esperientzia, eroapena eta lan-metodo egokia, zehaztasunarekin finkatu behar baita non aurkitzen den aztarna bakoitza. Sistema horren bidez aurkitzen diren objektu guztiak identifikatzen dira eta beraien arteko erlazioak ezartzen dira; horrez gainera aztarnategiaren kronologia erlatiboa

ere zehazten da, hau da, aztarnen aldi-esparrua finkatzen da zaharrenek berrienera.

Horrekin aritu ginen Santa Katalinako kobazuloan hamabost udatan. Uda haietan talde handi bateko kideok buru-belarri jardun genuen eta ahalegin handiak egin genituen; esaterako, kobatik erauzitako sedimentu guztiak garraiatu, ikuzi eta arreta handiarekin bahetu behar izan genituen. Dena den, onartu beharra dago lana eramangarriagoa eta atseginagoa izan zela Lekeition ikerketarako laguntza-eske joan ginen pertsona eta erakunde guztien jarrrera abegitsuari eta harrera onari esker.





1986ko indusketa kanpaina.

Argazkia: Xabier Gezuraga



Garai hartan hotza nagusi

Santa Katalinako koban egindako lanen ondorioz orain bada-kigu jendearen bizilekua izan zela tarteka duela 12.000 urtetik duela 8.000 ingurura arte. Aldizkako okupazioa koban elkarren gainean pilatuta aurkitu diren suen hondarrek salatzen dute, aldi batetik bestera kopurua eta potentzia aldatzen dira eta.

Aurrean aipatutako aldi berean Lumentxako koba ere okupatuta egon zen, oso hurbil. Beraz, pentsatzeko da gizatalde berak bizi izan zirela bietan, batean edo bestean tarteka edo gizatalde bat batean eta beste bat bestean.

Dauzkagun datu guztiak adierazten dute koba okupatuta egon zen lehen aldian klima nahikoa gogorra zela. Aurkitu diren animalia-hondarrak aztertuta esan dezakegu gaur egun Norvegiako iparraldean dagoenaren antzekoa zela, hau da, nahikoa hotza. Izan ere, urtean zehar gutxienez aldi batean batez besteko tenperatura 5° C-tik beherakoa izango zen eta horrek eragin handia edukiko zuen itsasoko uraren tenperaturan (egungoa baino askoz hotzagoa izango zen).

POLOETAN IZOTZ UGARI ZEGOELA ETA, KOSTALDEA GAUR EGUN BAINO KILOMETRO BATZUK HURRUNAGO ZEGOEN

Garai hartan ozeanoetako eremu handiak izoztuta zeuden eta poloetan izotz ugari pilatzen zen; ondorioz itsasoaren maila gaur egun baino beherago zegoen. Ez da gauza erraza zehaztea non zegoen itsasoaren maila duela 12.000 urte, baina kalkulatu daiteke gaur egun baino 75 - 80 metro beherago zegoela. Beraz, Santa Katalinako koba, egun kostaldeko labar batean dagoena, itsasoaren aurrean zegoen baina 5 km-ra urbazterretik.

Kobaren sarreratik itsaso aldera begiratuta malda leun eta nahiko zabala ikusiko zen, goragune handirik gabea. Kobaren aurretik Lea ibaiaren orduko ubidea pasatuko zen; itsasargia dagoen muturrean biratu eta iparrerantz joko zuen, urak itsasoan isurtzeko.



Ingurunean basoak urriak ziren: pinuak eta ipuruak; zuhaitz hostoerorkor gutxi zeuden. Zabalunetan espezie belarjale gregarioak bizi ziren, esaterako elur-oreinak eta oreinak.

Orain arte pentsatu izan da Madeleine aldiko gizakiek batez ere ugaztunak ehizatzen zituztela elikatzeko eta arrantza dietan garrantzi handirik ez zeukan osagarria baino ez zela. Santa Katalinako koban egindako ikerlanek uste horiek aldatu dituzte. Izan ere, ehiza garrantzitsua zen, baina arrantza ere bai. Eta, gainera, ohartarazi behar da ibai-erreketan ez ezik itsasoan ere aritzen zirela arrantzan.

duela

12.000

urte



Makailaua

Are gehiago, itsasoko arrantzaren garrantziaren datua berria bada ere, are adierazgarriagoa da argi eta garbi jateko egindako ebakien arrastoak dituzten bakailao-hondarrak aurkitu izana. Beraz, egiaztatu da Santa Katalinako kobazuloan bizi zirenek bakailaoak harrapatu eta jaten zituztela, eta gaurkoz arraina espezie horren hondarrak aurkitu diren Europako aztarnategirik zaharrena da: orain artean zaharrenak Norvegiako kostan zeuden eta hemengoak baino 4.000 urte modernoagoak ziren.

HOGEI KILOTIK GORAKO BAKAILOAK HARRAPATZEN ZITUZTEN

Ornoen tamainaren arabera bakailao gehienak 20 kilotik gorakoak eta metro bat baino luzeagoak ziren. Urertzetik kobara zegoen distantzia kontuan hartuta pentsa liteke harrapatutako arrainak kostaldean bertan manipulatu zituztela (tripak kendu, lehortu...) eta gero kobazulora eramango zituztela. Hala ere, buru-hondar ugari aurkitu direnez, ondorioztatu behar dugu arrain asko osorik eraman zituztela kobara.

Alabaina, bakailaoaz beste itsasoko espezie batzuk ere jaten zituzten, platuxa eta salmonido hondarrak ere aurkitu dira eta (azken horiek lehorreko uretakoak ere izan daitezke).

Ez dakigu nolako tresnak erabiltzen zituzten itsasoan arrainetan egiteko. Adarrez egindako arpoiak aurkitu dira, baina ezin dugu baieztatu ziurtasun osoarekin itsasoko arrantzarako erabiltzen zirenik. Halaber, ez dakigu nolakoak ziren itsasoko arrainen azturak garai hartan, baina uste izatekoa da presioa txikiagoa izanik kostaldetik hurbilago biziko zirela eta ontzietan nabigatu barik harrapatu ahal izango zirela.



Adarrezko arpoiak.
Argazkia: Eduardo Berganza



Michael Eisele du bakailao handienaren munduko errekorra, 47 kilotako bakailaoa! (103 libra). Hala ere, 1884ko "Scott`s emulsion" publizitatekoak, 156 libra! zituen, propaganda ote zen?



Bakailo hezurra ebaki artifizialekin. Argazkia: E. Roselló


Haragi-dietaren barruan ugaztunak (oreina eta elur-oreina) eta hegaztiak zeuden. Hegaztietan elur-hontza eta pottorro handia (desagertutako pingüino espeziea) ziren harrapakin ugarienak.

Aztarnategi zaharretan oso bakanak dira landare-hondarrak, eta hortik ondorioztatu daiteke garai haietako gizakiak batez ere ehizakiez elikatzen zirela. Hala ere, aztarnategi honetan hamar bat urteko bi gazteren bi hagin aurkitu ditugu eta dauzkaten narriadura-markek adierazten dute landare asko jaten zituztela.

SORRY



Fotomuntaketa: Xabier Gezuragaren kobazuloko argazkia txikitu dugu.



duela

8.000

urte



Santa Katalinako koba duela 8.000 urte inguru okupatu zen azkenekoz. Garai hartan ingurumena erabat aldatuta zegoen. Klima, gaur egungoa bezain epela ez bazen ere, nahikoa beroagoa zen; tenperatura-igoeraren ondorioz poloetako izotz-masak urtu ziren eta itsasoaren maila igo egin zen. Kobatik itsasorainoko distantzia laburtu zen eta kilometro bat ingurukoa izango zen.

Kobaren inguruan baso hostoerorkorrek zeuden (urkiak, haritzak, hurritzak) eta ibai-bazterretan haltzak eta sahasak. Koban bizi ziren gizakiek baso haietan biltzen zituzten fruituak eta haziak jaten zituzten. Esaterako, kiskaldutako ezkurak aurkitu dira.

Fauna ere aldatu zen, eta oreinaz gainera (espezierik kontsumituena) klima epeletara hobeto moldatutako espeziak ehizatzen zituzten, esaterako orkatza eta basurdea. Hegaztien ehiza ere aldatu zen eta itsasoko espezieak barik paduretakoak ziren harrapakin ugarienak.

Itsasoko ura epelago zegoen eta ondorioz kostaldera beste arrain-espezie batzuk hurbiltzen ziren, aztarnategiko garai hartako geruzan sardina, antxoa eta lupia hondarrak aurkitu dira eta. Ez dakigu ziur arrain guztiak arrantzan harrapatu ziren edo batzuk hegaztiei esker eskuratu zituzten. Nolanahi ere, lupiak handiak ziren (kilo bi inguru) eta argi dago gizakiek harrapatu eta ekarri zituztela.

Klimaren berokuntzaren eraginez itsasoko baliabideak ugaritu ziren, eta kostaldetik hurbil egonik Santa Katalinako kobako gizakiek errazago aprobe txatu ahal izan zituzten. Horren lekuko da lapa eta magurio oskolen kopuru ikaragarria; bi espezie horiek elikadura-osagarri onak izan ziren, eta haiez gainera itsas trikuak, lanpernak eta krustazeoak ere jaten zituzten.

